

PRENTSA OHARRA

Arteche eta Tekniker elkarlanean ari dira sare elektriko jasangarriagoa lortzeko

- *Enpresa eta zentro teknologikoa neurketa-transformadoreen fluido dielektriko mineralaren ordeztu fluido biodegradagarri bat jartzea ikertzen ari dira*
- *Hainbat aukera aztertuta eta isolamendu elektrikorako eraginkorrena aukeratu ondoren, nanoteknologiaren bidez haren ezaugarriak hobetzea aztertzen ari dira.*
- *Ana Aranzabe Teknikerreko Teknologia zuzendariak emaitzak aurkeztu ditu aste honetan Prestonen (Ingalaterra) egin den Lubmat 2023 nazioarteko biltzarraren.*

[Eibarren, 2023ko uztailaren 20an] – Euskal industria energia-trantsizioko prozesu batean murgilduta dago. Prozesu horren helburua da emisioak murriztea, energia berriztagarriak sustatzea eta sektorearen eraginkortasuna lortzea. Ingurumen-helburu horiek Europar Batasunak ere ezarrita ditu sektoreak planetan duen eragina minimizatzeko.

Testuinguru horretan, [Arteche](#) enpresa elektrikoa BIOATen buru da. BIOAT proiektuan [Tekniker](#) zentro teknologikoa ere parte hartzen ari da, neurketa-transformadoreetan fluido dielektriko mineral konbentzionalaren ordeztu fluido biodegradagarria jartzea ikertzeko. Gailu horiek goi-tentsioko lineen intentsitateak eta tentsioak kontagailu eta babesen bidez neurtzeko moduko balio bihurtzen dituzte.

Zehazki, Tekniker arduratu da Artechek hautatutako hainbat fluido dielektriko biodegradagarri aztertzeaz, egokiena aukeratzeko.

Egindako saiakuntzen ondoren, hautatutako likidoa ester fluido sintetikoa izan da, propietate fisiko-kimiko eta elektriko onenak (ez-eroaleak) dituenak. Transformadorearen fabrikazio-prozesuarekin lotutako irizpide teknikoak eta merkatu-irizpideak ere kontuan hartu dira.

"Fluido dielektriko mineralen ordeztu fluido biodegradagarriak jarrita, Europar Batasunak ezarritako ingurumen-helburuak betetzen direla ziurtatzen dugu, transformadorearen propietateei eragin gabe eta fabrikazioa nabarmen garestitu gabe", adierazi du Alberto Villar Teknikerreko proiektuaren ikertzaile arduradunak.

Fluido dielektriko horiek aplikazio elektrikoetan erabiltzen dira, neurketa- eta potentzia-transformadore gisa. Neurketa-transformadore baten funtzio nagusia isolamendu elektrikoarena da, sistema isolatzailea osatzen duen olio bostitutako paperarekin batera. "Fluido mineralak ez bezala, fluido biodegradagarriak modu naturalean eta ingurumena errespetatuz deskonposatu daitezke", gaineratu du Teknikerreko adituak.

Hobekuntzak nanoteknologiarekin

Probetan, Teknikerrek fluido ezaugarri fisiko-kimikoak eta elektrikoak aztertu ditu, bai eta likidoek transformadorearen junduraren duten bateragarritasuna ere.

Halaber, zentro teknologikoak nanoteknologiaren eragina ikertzen du, multzo isolatzailearen ezaugarri dielektrikoak hobetzeko.

Proiektuaren hurrengo urratsen artean, fluidoak neurri-transformadorearen gainerako materialekin duen bateragarritasuna egiaztatzea eta haren bizi-zikloa aztertzea daude, José Miguel Nogueiras, D&D engineer, eta Ixone Urruela, Sustainable Product leader, biak Artechē enpresakoak, azaldu dutenez.

Orain arte lortutako emaitzak Ana Aranzabe Teknologiko zuzendari eta Teknikerreko zuzendariordearen eskutik erakutsi dira, Ingalaterrako Prestonen uztailearen 17tik 19ra bitartean egindako [Lubmat 2023](#), lubrifikazio eta mantentze industrialari buruzko nazioarteko kongresuan.

BIOAT Eusko Jaurlaritzaren Elkartek programaren barruko 2. motako proiektua da, industria-potentzial handia dutenei buruzkoa.

Artecheri buruz

1946. urtean sortuta, Arteche Taldeak sektore elektrikoan bideratzen du bere jarduera, sorkuntzatik distribuzioraino. Bere espezializazioa ekipo, konponente eta irtenbide elektrikoan industrian dago. Honen baitan, Arteche Taldea neurri-transformadoreen merkatuaren TOP 3 lider mundialen artean dago, eta errele auxiliarretan lehenengoa ere bada. Gainera, eskakizun eta balio erantsi handiko merkatuetara bereziki bideratutako gainerako produktuetan lidergo erregionala mantentzen du, energia berriztagarriak eta tren-industria bezalako eremuetan adibidez.

Arteche Taldearen negozioak energia elektrikoaren garraio eta distribuzio eraginkorra, kalitatezkoa eta fidagarria ahalbidetzen du edozein sortze plantatik hasi eta azken erabiltzaileraino. Horregatik, enpresak I+G+B-n inbertitzen du bere produktuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, produktu berrien sorreran berritzeko eta bezeroei erabateko balio gehigarria eskaintzeko.

Egun, Arteche 175 herrialde baino gehiagotan dago presente komertzialki eta 13 lantegi ditu Europan, Amerikan, Asian eta Ozeanian. Hauen artean 6 ikerketa-zentro daude eta mundu guztian zehar 2.600 langile ditu.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundea eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Teknikerren, jariakin industrialen kontrolak helburu du jariakinen diagnostikoa lortzea, olioan eta koipe lubrifikatzaileen, dielektrikoan, hozgarrien eta erregaien mantentze-lan igarlea egiteko.

Lan-eremu nagusien barruan sartzan dira tenperatura altuko eta baxuko jariakin bero-eroaleak hainbat aplikaziotarako, jariakin industrialak garatzea eta hobetzea gehigarriak modu

selektiboan erantsita, eta karakterizazio-teknika aurreratuak garatzea eta prestatzea merkaturatzen diren jariakin berriei erantzuna emateko.

Informazio gehiago izateko:

GUK ▶ Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067